

MARTIN ALDAYA OLASAGASTI jaunak, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko Administrazio Kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 12an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Garbitania S.M.k bere jardueren gaineko ikuskaritza zerbitzua kontratatzeko behin behineko esleipena erabakitzea.

Aipatu zerbitzua kontratatzeko espedientea 2019ko urriaren 4an egin zen Administrazio Kontseiluak (Kontratazio organoa) onartu zuen. SPKL-ak bere 156 artikuluan arautzen duen prozedura irekia tramitatu eta lizitazioaren iragarkia 2019ko urriaren 4an bertan argitaratu zen Garbitaniaren web gunean eta Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratatzailearen profilean.

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan ondorengo bi eskaintzak jaso ziren:

- 1) Betean Auditoría, S.L.P
- 2) Zubizarreta Consulting, S.L.

Eskaintza horiek kontratazio mahaia osatzen duten administrazioaren arduradunak, zerbitzu juridikoak, kudeatzaileak, Usurbilgo Udal Zerbitzu saileko zinegotziak eta Hernaniko Udal Ingurumen saileko zinegotziak, aztertu dute.

Lehenengo eta behin pleguetan eskatzen diren administrazio dokumentuak behar den bezala aurkeztu diren aztertu da eta ondoren dokumentazio teknikoaren gutun azalak irekitzera jo da.

Eskaintzan aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan da balorazio teknikoa burutzeko. Proposamen teknikoaren balorazioari dagokionez, ondorengoak baloratu dira: lanen deskribapena, lan-taldearen esperientzia eta formakuntza; lan-taldearen euskara maila eta txostenen entrega epea. Balio iritzien bidez aztertutako dokumentazioaren gehienezko puntuaketa 30 puntukoa izanik, eskaintzaileek ondorengo puntuaketak lortu dituzte

Eskaintzailea	Lanen deskribapena	Esperientzia eta formakuntza	Euskara maila	Epea	Puntuaketa guztira
1.	9	9	3	4	25
2.	4	3	4	4	15

Ondoren, formula bidez baloratu beharreko eskaintzen balorazioa burutu da, Plegu Administratiboetako 16. atalean zehazten den moduan. Atal honi 70 puntu dagozkio gehienez eta eskaintzako prezioa izan da puntuatu beharrekoa. Lizitazio prezioa urteko tarifa izanik 9.100€, eskaintzaileek ondorengo eskaintzak aurkeztu dituzte eta adierazten diren puntuak lortu:

Eskaintzailea	Eskaintako prezioa	Lortutako Puntuak
1	8.490€	15,96
2	6.425€	70

Bi ataletako puntuaketa batuz, ondorengo puntuaketak lortu dituzte eskaintzaileek guztira:

Eskaintza	Balio iritzien bidez lortutako puntuazioa	Modu automatikoan lortutako puntuazioa	PUNUAZIOA GUZTIRA
1	25	15,96	40,96
2	15	70	85

Eskaintza ekonomikoa legearen arabera bereziki baxua dela kontuan harturik, kontratazio mahaiak legeak eta pleguek ezartzen dutena aplikatu dute eta errekerimendua egin dio Zubizarreta Consulting S.L. enpresari prezioen edo kostuen maila baxua edo eskaintzaren anormaltasuna definitu duen beste edozein parametro arrazoiz eta xehetasunez justifikatu eta xehaka dezaten.

Justifikazioa epe barruan jaso da eta kontratazio mahaiak aztertu eta ontzat eman du. Hori dela eta, kontratazio mahaiak Administrazio Kontseiluari Zubizarreta Consulting, S.L. esleipenduntzat hartzea proposatzen dio.

Gauzak horrela, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2019ko abenduaren 12an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adostu ditu:

Lehenengoa.- Garbitania S.M.k bere jardueren gaineko ikuskaritza zerbitzuaren kontratua ondorengo enpresari esleitzea adierazten den salneurrian (BEZ kanpo).

Eskaintzailea	Enpresa	Puntuaketa orokorra	Eskaintako prezioa urteko zerbitzuko
2	Zubizarreta Consulting S.L.	85	6.425€

Bigarrena.- Aipatu enpresari erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek (administrazio klausula partikularren 19. puntuan jasotzen direnak) aurkeztu ditzan eskaera hau jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:

- Enpresariaren jarduteko gaitasun osoa ziurtatzen dutenak.
- Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.
- Eskatzen den kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeko beharrezkoak

diren agiriak.

- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituztenak.
- Kontratua gauzatzeko beharrezko dituen eta atxikitzera konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen duten agiriak.
- EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken errezioboaren kopia aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratuak gauzatu ditzan.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.


10 laneguneko epealdiaren barruan Zubizarreta Consulting S.L. enpresari eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta Administrazio Kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat ematen da eta Zubizarreta Consulting S.L. enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.


Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Hernanin, 2019ko abenduaren 30ean

O.I.



LEHENDAKARIA



IDAZKARIA